Horregatik guztiagatik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Alkizako udalaren arteko Lankidetzaz-hitzarmena onestea, " Udaletxearen estalkia berritzea". Erabaki honi atxikitzen dena.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakari jauna ahalmenu Alkizako Udalaren izenean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin onestutako lankidetzaz hitzarmena sinatzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolaketako Foru Diputatuari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **ALKIZAKO UDALA ETA ITTEN, HERRIEKIN LAN EGITEN S.A.-ren ARTEAN SINATU ZEN LANKIDETZAZ HITZARMENAREN ALDAKETA, 2013ko ABENDUAREN 13Koa, HALA BADA**

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiak, Itten S.A.-ren laguntza, eskaini nahi ziela Udaletxe txikiei, laguntza tekniko, juridiko eta administratiboa dohain emanez. Horretarako hitzarmen marko bat prestatu zen.

Ikusirik Alkizako Udala interesatuta agertzen zela, Itten S.A.-k eskainiko dion laguntza administratibo, tekniko eta juridikoarekin, horregatik Alkizako Udalaren eta ITTEN, Herriekin lan egiten S.A.-ren artean lankidetzaz hitzarmen markoa onartu zuen Alkizako Udalak, 2013ko azaroaren 5ean eginiko Udalbatzarrean, 2013ko abenduaren 13an sinatu zena.

Ikusirik, lankidetzaz hitzarmena sinatu ondoren ikusi dela Alkizako Udalak eskatutako proiektuen garapenak, elkarlanetik kanpo dauden gastu batzuen ordainketa dakartela. Gastu horiek Ittenek bere gain hartu ditu eta ezinbestekoak dira bi alderdien lankidetzaz burutzeko.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen da lankidetzaz hitzarmenean honakoa jasotzea: Ittenek Alkizako Udalarari egotziko dizkio, lankidetzaz hitzarmen barruan adierazi den jardunbide bat garatzerakoan, aholkularitza lanak gaintitzen dituzten gastuak. Betiere, aurretik Ittenek ordaindu baditu.

Aurrekoan oinarrituz, bi alderdiek interesa azaldu dute lankidetzaz hitzarmena aldatzeko.

Aipatu den Lankidetzaz Hitzarmenaren bigarren klausula aldatzen da, eta honela idatzita geldituko da:

### **"2.- Jardunbideak**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **2.1. Hitzarmen honen markoan ekintza hauek jorratuko dira:**

- a) *Ittenek Alkizako Udalari aholkularitza zerbitzua emango dio bere gaitasun esparruarekin lotura duten gaietan, hauetan besteak beste: plangintza, kudeaketa eta sustapen urbanistikoa, natura eta paisaia baloreen zaintza, ingurune kalitatea, eraginkortasun energetikoa eta ingurune iraunkortasuna, higiezinaren kudeaketa eta sustapena, eraikuntzen eraikitze, mantentze eta eraberritzea, eta irisgarritasuna.*

*Horretarako, foru elkarte publikoak estudioak, proiektuak, txostenak eta edozein motatako tresnak idatzi ditzake, baita zuzendaritza eta exekuzioren kargu egin ere.*

b) *Era berean, hitzarmen honen xedearen atala da Itten eta Alkizako Udala edo bere mendeko erakunde publikoak elkarrekin lan egitea inbertsioen exekuzioan eta gauzatzean eta diru laguntza duten ekintzetan.*

**2.2. Aurrean deskribatutako jardunbideen garapen egokia lortzeko, honako dokumentu hau sinatzen duten bi aldeak konpromiso hauetara heldu dira:**

- *finkatutako helburuak lortzeko erabilgarri izan daitekeen informazio oro elkarri eman edo helaraztea.*
- *udalerraren interesen alde egiteko, beharrezkotzat jotzen diren ekintza guztiak elkarrekin sustatzea, baldin eta, elkartearen jarduera arrunta ez bada geratzen.*
- *beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzea, aurkeztutako proiektuak era egokian burutzeko.*

**2.3. Elkarlan honetatik kanpo dauden gastuak dituzten jardunbideak: hasiera batean Ittenek ordaintzen baditu ere, gastu hauek Udalari egotziko zaizkio. Horien abonua, jakinarazpena egin denetik kontaktzen hasi eta hurrengo 30 lanegunetan egingo da. Epe honetan ordaindu ez diren zenbatekoek atzerapenagatiko interesak sor litzakete; interes nominala, ekitaldi honetan ezartzen den diruaren legezko interesaren arabera izango da.**

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo,

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Alkizako Udalaren eta ITTEN, Herriekin lan egiten S.A.-ren artean, 2013ko abenduaren 13an, sinatu zen Lankidetzaren hitzarmenaren aldaketa onestea, hitzarmenaren bigarren klausula aldatzen delarik, honela idatzita geldituko delarik:





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **“2.- Jardunbideak**

### **2.1. Hitzarmen honen markoan ekintza hauek jorratuko dira:**

- b) *Ittenek Alkizako Udalari aholkularitza zerbitzua emango dio bere gaitasun esparruarekin lotura duten gaietan, hauetan besteak beste: plangintza, kudeaketa eta sustapen urbanistikoa, natura eta paisaia baloreen zaintza, ingurune kalitatea, eraginkortasun energetikoa eta ingurune iraunkortasuna, higiezin kudeaketa eta sustapena, eraikuntzen eraikitze, mantentze eta eraberritzea, eta irisgarritasuna.*

*Horretarako, foru elkarte publikoak estudioak, proiektuak, txostenak eta edozein motatako tresnak idatzi ditzake, baita zuzendaritza eta exekuzioren kargu egin ere.*

*b) Era berean, hitzarmen honen xedearen atala da Itten eta Alkizako Udala edo bere mendeko erakunde publikoak elkarrekin lan egitea inbertsioen exekuzioan eta gauzatzean eta diru laguntza duten ekintzetan.*

**2.2. Aurrean deskribatutako jardunbideen garapen egokia lortzeko, honako dokumentu hau sinatzen duten bi aldeak konpromiso hauetara heldu dira:**

- *finkatutako helburuak lortzeko erabilgarri izan daitekeen informazio oro elkarri eman edo helaraztea.*
- *udalerraren interesen alde egiteko, beharrezkotzat jotzen diren ekintza guztiak elkarrekin sustatzea, baldin eta, elkarrearen jarduera arrunta ez bada geratzen.*
- *beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzea, aurkeztutako proiektuak era egokian burutzeko.*

**2.3. Elkarlan honetatik kanpo dauden gastuak dituzten jardunbideak: hasiera batean Ittenek ordaintzen baditu ere, gastu hauek Udalari egotziko zaizkio. Horien abonua, jakinarazpena egin denetik kontaktzen hasi eta hurrengo 30 lanegunetan egingo da. Epe honetan ordaindu ez diren zenbatekoek atzerapenagatiko interesak sor litzakete; interes nominala, ekitaldi honetan ezartzen den diruaren legezko interesaren araberakoa izango da.**

**BIGARRENA:** Alkate-Lehendakari jauna ahalmenu Alkizako Udalaren izenean Itten S.A. –rekin onestutako lankidetzat hitzarmen aldaketa sinatzeko.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri ITTEN S.A.-ri ematea.

## **BEDERATZIGARREN PUNTUA**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDAL APARTAMENTUAREN LAGAPEN KONTRATUAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik C.C.P. andrea, Alkizako udalaren jabetzako den Don Juanena eraikineko bigarren solairuan dagoen apartamentuan bizi dela azken urteotan.

Ikusirik, Alkizako Udalak egoera hau arautu nahi duela, C.C.P. andreari errenta bat kobratuaz.

Ikusirik Udal gizarte laguntzaileak, 2015eko otsailaren 24ean eginiko txostenean jasotakoa.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### **ERABAKITZEN DU:**

**LEHENA:** C.C.P. andreari, Alkizako Udalaren jabetzako den Don Juanena eraikineko bigarren solairuko apartamentua alokairuan ematea. Hilero ordaindu beharreko errenta 60 euro izanik. Kontratu honen iraupena C.C. bizi bitartean edo hau zentru batera joan bitartekoa izango da

**BIGARRENA:** C.C.P. andreari jakinarazi, Udalak prestatutako kontratua sinatu beharko duela. Horretarako Alkate-Lehendakaria ahalmen duz. Alokairuko baldintza guztiak aipaturiko kontratuan arautuko direlarik.

**HIRUGARRENA:** C.C.P. andreari jakinarazi, Udalaren apartamentua erabiltzeko, 180 eurotako fidantza jarri beharko duela Udaletxean.

**LAUGARRENA:** Akordio hauen berri interesdunari ematea.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

## **XII. AIZTONDO KLASIKOARI “ PATXI ALKORTA MEMORIALARI” 2015eko EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Aiztondo Klasikaren Batzordetik igorritako idatzia, non dioen 2015eko martxoaren 8an egingo den XII. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memorialaren” gastuei aurre egiteko 2015 urterako Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 1.520,85 eurotan finkatzen duen.

Ikusirik 2015 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusitako dela.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Aiztondo Klasikaren Batzordeari 1.520,85 eurotako ekarpena burutzea, 2015eko martxoaren 8an XII. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta memoriale" antolatu ahal izateko, gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 1.520,85 eurotako gastua onestea.

### **HAMAIKAGARREN PUNTUA**

### **AGINAGA BASERRIKO BARATZA BABESTEKO PARETA BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, HALA BADA**

Ikusirik J.A. andreak eginiko eskaera, hau da, Aginaga baserriko baratza babesteko pareta bat egiteko obra baimena eskaera egiten du.

Ikusirik 2015eko otsailaren 28an Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

### **"ALKIZAKO AGINAGA BASERRIAREN BARATZA BABESTEKO PARETA EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*J.A. andreak , Aginaga baserriaren iparraldean dagoen baratza babesteko hormigoizko pareta bat egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontu eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko txosten bat aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:*

*2015eko urtarrilaren 23-an aurkeztutako eskariaren arabera, baserriaren lursailaren iparraldeko muga eta ondoko baserriaren kreosotaz trataturik dauden egurrezko itxituraz babesteko, pareta bat egin nahi da baratzako luzera guzian.*

*Aurrekontuaren arabera, pareta hormigoizkoa izango da eta txapazko erremate bat izango du, auzuneko hesia baino altuera gehiago izanik. Lanen balioa BEZ-a gabe 4.120€-koa izango da.*

*Ondoko baserriaren egurrezko itxitura, harrizko pareta baten gainean dago eta baratza baino altuagoa gelditzen da.*

*Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, finka-itxierek udal lizentzia behar dutela esaten du.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*Aginaga baserria, Alkizako lur ez hiritargarran kokaturik dago, bereziki Erabilerarik Esleitu Gabeko lurrean.*

*Udal araudiaren arabera, lursailak ixteko hesiak zuhaixkaz osaturakoak, alanbrezkoak, edo egurrezko hesolazkoak izango dira, gehienezko altura 1m koa izanik.*

*Muru euskarrien akaberak harrizkoak izan behar dira.*

*Egin nahi den paretak, 1m baino gehiagoko altuerarekin eta hormigoizko bukaera izanik, Alkizako araudiarekin topo egiten du, beraz, legezta ezina dela informatzen dut.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.A.andreak eginiko eskaera ukatzea, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren arrazoiengatik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri J.A. andreari ematea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **12.1. ALKIZAKO IGARANTZABAL BASERRIKO TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.I.**

Ikusirik, J.I. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Igarantzabal baserriko teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2015eko martxoaren 2an, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

**“ALKIZAKO IGARANZABAL BASERRIKO TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*J.I. jaunak, Igarantzabal baserriko teilatuan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*Aurkeztutako idatziaren arabera, eraikinaren teilatuaren konponketa, gaur eguneko teila eta egurrezko lata ordezkatzeari izango da. Teilatu berriari isolamendu termikoa eta lamina iragazgaitz bat jarriko zaio. Lan hauen aurrekontua, dagokion segurtasun eta osasun plana barne, 15.936€-koa da (BEZ-a gabe).*

*Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.*

*Igaranzabal baserria Alkizako lur ez hiritargarran kokaturik dago, bereziki Erabilerarik Esleitu Gabeko lurrian. Arau subsidiarioen arabera eraikinak ez du inolako katalogazio edo babes berezirik.*

*Alkizako lur ez hiritargarriaren araudiaren 3.2 artikulua arabera, mota hontako teilatuen akabera, zeramikazko teilak ala txapa konformatu eta lakatu gorria izan beharko da.*

*Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Alkizako araudiarekin bat datozen, legeztagarriak direla informatzen dut.*

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

*Lanak amaitzean, eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean”.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- J.I. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Igaranzabal baserriko teilatua konpontze lanak egiteko obra baimena ematea.

BIGARRENGOA.-Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea.

**12.2. ALKIZAKO GARAIKOETXEA BASERRIKO TXAKOLINDEGIAREN PROIEKTUARI EGINDAKO ALDAKETEN OBRA BAIMENA ESKAERA, X.U.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik, Alkizako Garaikoetxea baserriko txakolindegiaren proiektuari aldaketa batzuk egin direla, horretarako X.U. jaunak aldaketa hauek legeztatzeko obra baimena eskaera egiten du.

Ikusirik, 2015eko otsailaren 24ean, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

**“ALKIZAKO GARAICOETXEA BASERRIKO TXAKOLINDEGIAREN PROIEKTUARI EGINDAKO ALDAKETEI TXOSTENA**

*X.U. A. jaunak, Alkizako Garaikoetxea baserriko txakolindegiaren proiektutik kanpo galditzen diren lanak legeztatzeko baimena eskatzen du, Garazi del Rey ingeniariak sinatutako dokumentazioa aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:*

*Aurrekariak:*

*2013-ko ekainean Xabier Lopez Atxega eta Iñigo Garcia Agirrezabala sinatutako “Garaikoetxea Txakolindegia. Oinarrizko eta Exekuzio proiektua”ri obra baimena eman zitzaion.*

*2014-ko azaroaren 17-an Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako departamentutik baserriko lursailetan betelanak egitearen baimenaren jakinarazpena iristen da udaletxera.*

*Egindako lur mugimenduak proiektuan egindakoarekin bat egiten ez zutenez, azalpenak eskatzen zaizkio X.U.jaunari.*

*2014-ko abenduaren 10-ean, zimentazioa egiteko eskabaziotik ateratako lurrak bertan zabaldu eta bertaratzeko sarrerak egokitu dirala erantzuten du.*

*Lan hauek proiektuan jasoak ez zeudenez, dokumentazio osagarria eskatzen zaio obra sustatzaileari.*

*2015-eko urtarrilaren bukaeran arkitektoen elkargotik teknikarien obra zuzendaritzaren uko egitearen abisua jasotzen da.*

*Alkizako Hiri Antolaketako arauen 13º artikulua arabera “obrako zuzendariak bere kargua uzten baldin badu, udalari honen berri eman beharko dio eta obrek ezin izango dute aurrera jarraitu beste zuzendari b atek eginkizun horri ekin diola jakirazten ez den arte”.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*2015-eko otsailaren 13-an, Portu, Ubide eta Bideetako ingeniariaren elkargoak bisatutako Garazi del Rey ingeniariaren obra zuzendaritzaren izendapena entregatzen da udaletxean.*

*2015-eko otsailaren 23-an, Garazi del Rey ingeniariak sinatutako Garaikoetxea txakolindegiko proiektuaren dokumentazio gehigarria jasotzen da udaletxean.*

*Aurkeztutako dokumentazioan eraikinaren distribuzio eta itxura berrien plano modifikatuak, euste horma eta lur mugimenduen justifikazioak (200m<sup>2</sup>ko aparkalekuarekin batera) eta fosaren kokapen berria azaltzen da.*

*Txakolindegiko ustiakuntzaren azalera eraikigarri berria 343,99m<sup>2</sup> izango da eta lan berrien aurrekontua **14.175,80€** da.*

*Garaikoetxea baserria Alkizako lur ez urbanizagarrian kokatua dago, konkretuki erabilerarik esleitu gabeko zonaldean, beraz Hiri Antolaketako arauen aldaketa lurzoru hirtarrezinaren araudia erabili beharko da.*

*Honen arabera, murre euskarriak harrizko bukaera bat izan beharko luke, baina pareta hau eraikinaren fatxadaren prolongazio bat bezala ulertua, akabera argia, zarpiatua edo pintatua ere izan daiteke (nahiz eta mahatsa murruren kontra landatu).*

*Komun berriek ez dute 68/2000 dekretuaren irisgarritasun baldintzak betetzen. 3.12.2. artikulua arabera, "komunak banatzera destinatutako espazioetan 1,80m-ko diametroa izango duen oztoporik gabeko zirkulu bat egin ahal izango da."*

*Zabalpenaren tximiniek Kode Teknikoaren HS3-ko 3.2. artikulua markatzen duen altuera izango dute gutxienez.*

*Fatxadan egin nahi diren aldaketak (bao berriak) onargarriak dira.*

*Fosari buruz Alkizako araudiak zehazki markatzen duena zera da: "Las fosas se emplazarán en las inmediaciones de las instalaciones ganaderas y en cualquier caso dentro del perímetro de la parcela que contiene el edificio principal...El elemento depurador llevará incorporado, a la salida de los efluentes, zanjas drenantes con objeto de filtrar al terreno las aguas, y se emplazará a la distancia necesaria, para que los mencionados efluentes no se viertan ni fluyan en los predios contiguos."*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*Katastroaren arabera fosa berria ez dago eraikin nagusiaren lursailaren barruan sartua, baina X.U., lursail hori eskritoretan banatua ez dagoela esaten duen lau anaiek sinatutako idatzi bat aurkezten du.*

*Obra amaieran fosa legeztatzeko egoera hau zuzendu beharko da.*

*Lur mugimenduei buruz, eta proiektuan eatend en bezala, obrak hunkitutako zona guziak berreskuratuko dira, bai jarduerak egon diren lursailetan bertan, bai jarduera osagarrientzat (sarbidea egiteko, adibidez...). Landarediaren berrezartze honetan bertako landare espezieak aukeratuko dira.*

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

*Aurrekoa betetzen bada, lanak legeztagarriak direla informatzen dut.*

*Ingurumenaren lege berriaren arabera (Ley 3/1998, Protección Medio Ambiente País Vasco modificada por L7/2012) Jarduera sailkatu baten aurrean aurkitzen garenez, obra bukatzean **aldaketak jasotzen dituen jarduera proiektu berri batekin** aurretiazko komunikazio bat aurkeztu beharko da udaletxean jarduerarekin hasteko, erantzule bakarrak jardueraren titularra eta egiaztagiria eman duen teknikaria izanik."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- X.U.. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Garaikoetxea baserriko txakolindegiaeren proiektuari egindako aldaketen obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren neurriak betetzen badira.

BIGARRENGOA.-Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **12.3. I.A.E. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik I.A.E. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Udalak utzitako Don Juanena eraikineko apartamentua erabiltzeagatik jarritako fidantzaren itzulera eskatzen duen.





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik I.A.E. jaunak aipaturiko apartamentua ez duela jasotako egoeran utzi.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.A.E. jaunari jakinaraztea, 8 egun izango dituela Don Juanena etxean erabilitako apartamentua garbitzeko eta sartu zen egoera berdinean uzteko. I.A.E. jaunak garbituko badu jarritako fidantza bueltatuko zaio.

BIGARRENA: I.A.E. jaunari jakinaraztea, goian aipaturiko epea pasa ondoren, apartamentua zikin jarraitzen badu, Udaletxeak garbituko duela eta jarritako fidantzatik deskontatuko duela dagokion gastua.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri I.A.E. jaunari ematea.

### **HAMAIRUGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

#### **13.1.MARTXOAK 8 “EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA” DEKLARAZIOAREN ONESPENA, HALA BADA**

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela kontutan hartuta, ondorengo deklarazioa aurkezten da:

*1.Martxoaren 8a/Emakumeen Nazioarteko Eguna nazioarteko komunitateak adostutako data da, eta ekimen horren helburua mugimendu feministak eta emakumeen elkarteak mugimenduak zein emakume eta gizonen mugimenduak berdintasuna lortzeko asmoz egindako lana aintzat hartzea da.*

*2.Martxoaren 8a dela eta, emakumeen mugimenduaren ekimenak babestearen garrantzia azpimarratu behar da, helburu hauek lortzeko:*

*a)emakumeen partaidetza soziopolitikoak eta elkarte-sarea sustatu, ahalbidetu eta babestea.*

*b)udal instituzioen eta herritarren arteko aliantzak sortzea, tokiko berdintasun politikak lantzeko.*

*c)tokiko berdintasun politikak sustatzeko orduan, emakumeak eta emakumeen edota feministen mugimendu antolatua funtsezko solaskideak direla onartzea.*

*3.Udalak konpromisoa hartzen du mugimendu feminista edota emakumeen mugimendu antolatua sustatzeko, babesteko eta indartzeko, herriko bizitzan*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ahalbidetzeko asmoz.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Martxoak 8 “Emakumeen nazioarteko eguna” deklarazioa bere osotasunean onestea.

### **13.2. “TOLOSALDEA SAHARAREKIN G.K.E. SAHARA BIZI” MOZIOAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ondoren Tolosaldea Sahararekin G.K.E. Sahara bizi mozioa aurkezten da, ondorengoa diolarik:

*“Saharar errepublika arabiar demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 39. urteurrenean, Tolosaldea sahararekin elkarrekin **Alkizako** udalbatzari ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.*

*Udalbatza honek ondokoa adierazi eta eskatzen du:*

*1.-Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zanpaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoen ezbairik gabeko salaketa eta gaitzespen bortitzena adierazten du.*

*Aurten eskakizun berezia egiten du, giza eskubideen aldeko hainbat eta hainbat elkarteek egin duten moduan, indarrean dagoen nazioarteko legediari jarraiki, Hassana Aalia ekintzailearen asilo eskaera berraztertu eta onartu dadin. Era berean, gaitzetsi nahi du espainiar gobernuko barne sailak Hassana Aaliaren eskaera honi uko egin izana eta salatu nahi du kasu honetan aurreko hainbatetan bezela, espainiar agintarien konplizitatea etengabeko eraso hauekin.*

*2.-Mendebaldeko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarra izateari utzi diezaion.*

*3.-Mendebaldeko Saharako biztanleak, eurek askatasunez egokien deritzoten naziotasunari eta biztanle orori, Mendebaldeko Saharakoak barne, dagokigun*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*mugimendu askatasuna errespetatzea eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600km luze den lotsaren harresia eraistea eskatzen du.*

*4.-Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki, Mendebaldeko Saharako urak bere baitan hartzen dituen artean, saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna etetea eskatzen du.*

*5.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudenzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako deskolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.*

*6.- Espainiar estatuko diputaduen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuai, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.*

*7.-Saharar errepublika arabiar demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 39. urteurrenarekin bat etorrituz, 2015ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera herriko udaletxean zintzilikatzea adosten du.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Tolosaldea Sahararekin G.K.E. Sahara bizi mozioa bere osotasunean onestea.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.45 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*